

Atalak

CURRICULUM MATERIALAK

HIZKUNTZA ETA LITERATURA



**Gure
hizkuntzaren
inguruan**

Ikastetxea:

Ikaslea:

Maila:

DBHO Batxilergoak

HELBURUAK

1. Gure **hizkuntzaren bilakaera historikoa** jakitea.
2. Munduko **hizkuntzen sailkapena** jakitea.
3. Gure **hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriak** jakitea.
4. Gure hizkuntzak **beste hizkuntza eta kultura batzuekin** zer harremanen izan dituen berri izatea.
5. Gure **literaturaren historia** jakitea.
6. Gure hizkuntzaren **historiako** pertsona ospetsuen berri izatea.

URRATS METODOLOGIKOAK

- a) **Atalka** antolaturiko informazio laburrak.
- b) **Grafikoen** laguntza, informazioak hobeto ulertzeko.

LAN PROZEDURA

- Irakaslearen azalpenak**, testu eta grafiko bidezko informazioak argitzeko.
- Ikasleen irakurketa**, informazioez jabetzeko.
- Diapositibak**, grafiko batzuk argiago ikusteko.
- Azterketa test bidez** (Egia/Faltsua) ikasitakoa finkatzeko eta neurtzeko.

GALDERA HAUEI ERANTZUN AHAL IZATEKO:

1. Zer esan nahi du *euskara* hitzak?.
2. Zenbat gara euskaldunak gaur egun?
3. Zein izan da euskararen hedadura geografikoa hiztorian zehar?
4. Zenbat hizkuntz familia daude munduan?
5. Europako hizkuntzak zelan sailkatzen dira?
6. Non kokatzen da euskara munduko eta Europako hizkuntzen artean?
7. Zein da euskararen jatorria?
8. Zein hizkuntza zeuden penintsulan K.a. 500-1000 urte?
9. Zer harreman izan zuen euskarak latinarekin?
10. Zer harreman izan zuen euskarak bisigodoekin?
11. Zer harreman izan zuen euskarak arabiar kulturarekin?
12. Noizkoak dira euskarazko lehen inskripzioak?
13. Noiz eta non agertu ziren euskarazko lehen esaldiak?
14. Araba eta Nafarroa hegoaldean, zein zen euskararen egoera XII-XV mendeetan?
15. Non eta noiz sortu zen euskarazko lehenengo liburu inprimatua?
16. Nor izan zen euskarazko lehenengo idazlea?
17. Zer eragin izan zuen protestantismoak euskararen garapenean?
18. Zer izan zen Sarako Eskola?
19. Zer dira apologistak? Nortzuk dira ospetsu?
20. XVII-XVIII. mendeetan, zer eragin izan zuen euskararen Eliza katolikoak?
21. XIX. mendean zer fenomeno da aipagarri Euskal Herrian?
22. Noiz hasi ziren euskarari eta euskalkiei buruzko ikerketak? Nortzuk dira aipagarri?
23. Zein pertsona dira aipagarri XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran?
25. Zein idazle ospetsu aipa daitezke XX. mende hasieran?
26. Zer egoera izan zuen euskarak Francoren garaian?
27. Noizkoa da euskara batua?

Aurkibidea

1. SARRERA
2. EUSKARA. KOKAPEN OROKORRA
3. MUNDUKO HIZKUNTZAK. OINARRIZKO JAKINGARRIAK
4. EUSKARA, MUNDUKO HIZKUNTZEN ARTEAN
5. JATORRIA ETA BALIZKO AHAIDEAK
6. BILAKAERA HISTORIKOA: HARREMANAK BESTE HERRI ETA HIZKUNTZA BATZUEKIN. LITERATUR MUGIMENDUAK
7. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA
8. EUSKARAREN EGOERA GAUR EUSKAL HERRIAN

1. SARRERA

Zentzu zabalean, *euskara* edo *euskera* hitzak, "euskaldunen era" edo "euskaldunen modura" esanahia duela esan dezakegu, *ibilera*, *izaera*, *basiera* edo *amaiera* hitzei *-(k)era* atzizkiak ematen dien esanguraren haritik, hain zuzen ere.

Euskaldun berbak, ostera, *euskara* + *dun* osaketa du, euskaldunak bere burua horrela definitzean hizkuntzarekin, euskararekin sentitu izan duen lotura estua nabari delarik. Hitz horren aurkakoa, antagonikoa ere badugu: erdalduna, euskara ez den beste edozein hizkuntzadun pertsona izendatzeko erabil daitekeena; hizkuntza arrotzak *erdara* deitzen dira: espainiera, frantsesa, ingelesa...

Euskaraz berba egiten denean, zaila da "euskalduna da, baina ez daki euskaraz" modukoak ulertzea, berez-berez loturik baitaude kontzeptu biak euskaraz: hizkuntza eta jatorria; oztopo hori saihesteko sortu dira "euskotarra" eta, arestian, "euskal herritarra". Gaztelaniaz ere berezikuntza hori egiten da, "vasco" eta "euskaldun" hitzen bitartez.

2. EUSKARA. KOKAPEN OROKORRA

Gaur egun, populazio osoaren hitzunen batez-besteokoari begira, euskarak historiako ehunekorik makalenetakoa du, Euskal Herriko biztanleen %30 inguru dira euskaldun. Baina, bestetik, kopuruari begira, ez du sekula gaur beste hiztunik eduki bere historia guztian: 850.000 inguru. Beste datu bat: 2001ean munduko hogeitazazpi hizkuntza soilik mugitzen ziren satellite bidezko komunikabideetan, eta horietako bat euskara zen.

Euskal hiztunak, politikoki berba eginda, bi estatu-tan bizi dira: Frantzian eta Espainian; hala ere, euskararen presentzia eta antzintasuna bi estatu horiek sortu baino askoz ere lehenagokoa da, milaka urte lehenagokoa. Bestalde, Ameriketara, bereziki XIX. mendean bertaratu ziren milaka euskaldunek osaturiko giza taldeetan, beste euskal ohitura batzuk bezala, hizkuntza ere gorde izan dute hainbatek, itsasoz haraindiko euskaldungo txiki bat osatuz.

Euskara hitzaren jatorriaz


- ABIAPUNTUA. Adizki trinkoetan, dagokien aditzaren erroak ageri dira: *goaz* (*joan*); *dakarzu* (*ekarri*)...
- *Esan* aditzaren forma trinkoak, ostera: *diözu* / *dinozu* (B), *diostazu* / *dinostazu* (B)...
- HIZKUNTZ TEORIA (Alfonso Irigoien hizkuntzalariak).
 - a) Aditz zaharra: **enautsi* > **inotsi*. "Esan"
 - b) **Enautsi* aditzak bokalar-teko *-n-* galdu.
 - c) **Enautsi* + *-kara* / *-kera* atzizkiak:
 - > *euskara*, *eskuara*, *euskera*, *auskera*, *uskara*



Iturria: *Euskara, euskaldunen bizkuntza*. J. Intxausti. Eusko Jaureritza, 1990.



Iturria: *Orbipean*. Xamar. Pamiela, 1992



Iturria: *Euskara, euskaldunen bizkuntza*. J. Intxausti. Eusko Jaureritza, 1990.

Euskararen egoera

4



Iturria: Elburay.

Euskararen hedadura geografikoa, hirugarren milurtekoan, mapan (2) ikusten den bezala mugatzen da. Halere, berreuskalduntze lanak eremu horretatik kanpo gero eta euskal hiztun gehiago ekarri ditu.

Historian atzera jotzen badugu, berriz (3, 4), ohar-tuko gara euskararen eremua XVII. mendetik hona murriztuz joan dela eta zabalen ibili zenean ekialdetik Aragoiko lurretan sartzen zela eta Hegoaldetik Errioxa osoa ere hartzen zuela; bestalde, euskal leku izenak Kataluniako Pirinioetaraino hedatzen dira, Aran leku-izenak (Katalunia) salatzen duen bezala.


3. MUNDUKO HIZKUNTZAK. OINARRIZKO JAKINGARRIAK.

Hizkuntz familien ikerketa

- Greenberg: duela 15.000-20.000 urte "superfamilia eurasiarra" bizi zen, hizkuntza multzo handi bat.
- Merritt Rhulen. Munduko hizkuntzen mapa osatu zuen.
- Rhulen: Superfamilia eurasiarra zabaltu zenean, familia dené-kaukasiarra (5) (euskara, kaukasiera, sinotibetera, na-denea) zatitu eta isolatu egin zen.

The Origin of Language, Tracing the Evolution of the Mother Language (1994)


Une nouvelle famille de langues, le déné-caucasien (1997)




Iturria: L'origine des langues. M. Rhulen, (1997).

Jakingarriak

- Joseph Greenberg. Antzinako hizkuntzen ikerketan aitzindaria.
- Munduko hizkuntzen sailkapena egiteko metodologia: "lexikoaren estatistika" eta "sintaxiaren ikerketa".
- Egun munduan, 5.000 hizkuntza, 16 familia. (Rhulen)
- Munduan 5 hizkuntza isolatu ageri dira. Euskara da horietako bat.
- Hizkuntz biodibertsitatea (1996): Amerikan %15, Pazifikoan %19, Asian %33, Afrikan %30, Europan %3. (Iturria: *Ethnologue*. Barbara, F.)



Iturria: Greenberg-Rhulen.



Iturria: Gamkrelidze, T. V. & Ivanov, V. V. *La protohistoria de las lenguas indoeuropeas* (1996)